



## OSTATU MAHAIA

2022ko urriak 27

### GAI-ZERREDA:

1. Sektorearen aurkezpena eta azterketa.
2. Informazioa hurrengo gaiet buruz:
  - Kit Digital
  - GetxHotel
  - Turismo etikoa
3. Fororako ordezkari berria
4. Ideia eta proposamen berriak.

### BERTARATUAK: (% 9)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoi emanda	Arrazoirik eman gabe
Neguri hotela	Javier Angulo		X	
Embarcadero hotela	Bárbara Anasagasti		X	
Los Tamarises hotela	Karmele Abarrategui		X	
Igeretxe hotela	Nagore Saiz		X	
Artaza hotela	Joseba Oribe		X	
Areeta pentsioa	José Miguel Pérez		X	
El Abra pentsioa			X	
Basagoiti pentsioa	Mikel Valdés		X	
Barrika Surf Kanp	Nagore Nicolás		X	
Kai apartamentuak	Jasone Fernández		X	
Etxetxu apartamentuak	Iñaki De La Torre	X		
Getxoko Udala – Ekonomia Sustapeneko Arloa	Idoia Belasko	X		
	Mercedes Montalban	X		
	Aitor Zorrilla	X		



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

## EDUKIAK:

### 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Iñaki De La Torre soilik joan da bilerara, Portu Zaharreko Etxetxu apartamentu turistikoen jabe den ekintzaile berria. Bilera honetatik aurrera, Idoia Belasko eta Mercedes Montalban izango dira ostatu-sektoreko ordezkariak laguntza emango dieten sustapen ekonomikoko teknikariak. Edozein kontsultatarako:

- Mercedes Montalban Gil: mmontalban@getxo.eus
- Idoia Belasko Perez: ibelasko@getxo.eus

Iñaki De La Torre kontsulta-foroaren bilerara doan lehenengo aldia denez, Aitor Zorrillak azaldu dio zertan datzan Enpresen Kontsulta Foroa. Informazio gehiago: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Enpresen Kontsulta Foroa- Enpresen Kontsulta Foroa](#)

Horrez gain, foroko bileretara joatea lagungarria da enpresetako arduradunak elkar ezagutzeko eta *networking*eko lan-sarea eratzeke, haien arteko sinergiak sortzeko. "Apartamentuak beteta badituzu edo zuk eskaini ezin diezaiokezun zerbitzu-mota baten bila dabilen bezeroren bat aurkezten bada, jakin behar duzu udalerriko zein beste ostatu gomendatu", proposatu du Idoia Belaskok, udalerrri barruan bezeroak trukatzeko modu gisa. Halaber, Idoia Belaskok Iñaki De La Torreri gomendatu dio mezu elektronikoko bat bidali diezaien sektoreko gainerako enpresei, udalerriko ekintzaile berri gisa bere burua aurkeztu dezan.

### 2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

#### 2.1. Kit Digital

Iñaki De La Torrek adierazi du bere kideak eta berak webgune bat egin nahi dutela beren apartamentuak sustatzeko eta erreserbak egiteko aukera eskaintzeko. Ekonomia Sustapeneko Arlotik, Idoia Belaskok Kit Digital laguntzen berri eman dio.

Informazio gehiago: [Kit Digital | Acelera pyme](#)

#### 2.2. GetxHotel

Mercedes Montalbanek GetxHotel programa eta horren funtzionamendua azaldu ditu. Irudia eguneratu da; oparia lortzeko baldintza bakarrak hauek dira: goi-denboraldian gutxienez hiru gaueko erreserba egin behar da eta behe-denboraldian bi. Informazio gehiago: [Getxo – GETXO EZAGUTU – GetxHotel sustapena](#)

#### 2.3. Turismo etikoa

Idoia Belaskok turismo etikoko proiektuaren berri eman du, eta azpimarratu du bereizgarri hori izatea garrantzitsua dela besteengandik nabarmentzeko.

Informazio gehiago: [Getxo – Ekonomia Sustapena – Programak - Turismoaren kode etikoa](#)



### 3. Fororako ordezkari berria

Jakinarazi da ostatu-sektoreak ez duela ordezkariarik. Garrantzitsua da hutsunea betetzea, sektore hori ordezkariarik gabe geratzen baita:

- Tokiko ostatu-sektore osorako.
- Hura enpresen kontsulta-foroan ordezkari izateko: foro horretan, hainbat sektoretako ordezkariak lehentasuna ematen diete beste hainbat mahai sektorialetatik helarazitako proposamenei.
- Kontrasteko Mahai Politikoan ordezkari izateko: foro horretan, hainbat sektoretako ordezkariak beren beharrak eta proposamenak azaltzen dizkiete udal-ordezkari izateko talde politikoetako ordezkariari.

Era berean, adierazi dute garrantzitsua dela ostatu-sektoreko ahalik eta ordezkari gehien bertaratzea; izan ere, ostatu-mahaiaren baitan askotariko eskaintza dago eta guztiek ez dituzte beharizan berberak: hotelak, pentsioak, apartamentu turistiko, etab. daude eta, beraz, garrantzitsua da bakoitzak bere azterketa eta betebeharrak jakinaraztea. "Interesgarria izan daiteke ordezkari bakarra ez egotea eta pertsona bat egotea apartamentuen ordezkari gisa jarduteko, beste bat hoteletarako, eta beste pertsona bat pentsioetarako", proposatu du Mercedes Montalbanek.

Esan da deitutakoen parte-hartzea oso txikia dela eta ez dagoela ordezkariarik:

- 2020ko irala (8 pertsona deituta): 2 pertsona bertaratu dira
- 2021eko urtarrila (8 pertsona deituta): 5 pertsona. Pandemiaren egoera, 2 establezimendu itxita
- 2021eko martxoa (8 pertsona deituta): 3 pertsona bertaratu dira
- 2021eko iraila (8 pertsona deituta): 2 enpresa bertaratu dira. Erabakietako bat: Hautagai berria proposatzea Enpresen Kontsulta Foroan ordezkatzeko urriaren 5a baino lehen
- 2022ko uztaila (9 pertsona deituta): pertsona 1 bertaratu da
- 2022ko urria (10 pertsona deituta): pertsona bat bertaratu da, eta berria da. Urtebete geroago, 2021eko iraileko akordioak egoera berean jarraitzen du

Ostatu hartzeko azken mahaiari jasotako erabakien artean, sektoreko ordezkariak hautagai berri bat proposatzea zegoen, Enpresen Kontsulta Foroan ordezkatzeko. Ahal dela, 2022ko irailaren 13a baino lehen [getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) helbidera idatziz, baina oraindik inork ez du idatzi, beraz, ordezkariarik gabe jarraitzen dugu.

Interesdunek beren hautagaitzak aurkeztu ditzakete helbide honetara idatziz: [getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus)

### 4. Ideia eta proposamen berriak.

Iñaki De La Torrek proposatu du TAO txartela bat egitea ostatu turistikoetako ostatu-hartzaileentzat, ordaintzeko gunetan doan aparkatu ahal izateko.

Halaber, Iñaki De La Torrek eskatu du Portu Zaharrean argiztapen gehiago jartzeko, neguan goiz iluntzen duelako eta oso argiztapen gutxi dagoelako.

Horrez gain, Iñaki De La Torrek proposatu du turismo-bulego bat jartzea Portu



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

Zaharrear. "Turismoko plantillan dauden langileen kopurua mugatua da eta arreta eman behar dute urteko ia 365 egunetan; hortaz, ezinezkoa da Portu Zaharreko turismo-informazioko gune berri batera eramatera langileak", azaldu du Mercedes Montalbanek.

OSTATU MAHAIAREN ERABAKIAK (2022-10-27):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Ekonomia Sustapen Arloa.	Bileratik aurrera
2. Hautagai berria proposatzea Enpresen Kontsulta Foroan ordezkari izan dadin.	Sektoreko enpresak	Bileratik aurrera
3. Etxetxu apartamentuaren argazkiak bidaltzea Ekonomia Sustapeneko Arlora.	Iñaki De La Torre	Bileratik aurrera
4. Enpresaren fitxa betetzea eta Ekonomia Sustapeneko Arlora bidaltzea.	Iñaki De La Torre	Bileratik aurrera
5. Okupazio-datuekin bete beharreko txantiloia bidaltzea.	Ekonomia Sustapeneko Arloa	Bileratik aurrera